

"Argitaletxeak, zuzentzaileak eta itzultzaileak"

EuskAlema Kultur Elkarteko alemana/euskara itzultzaileen apirileko bileran argitaletxeen eta zuzentzaileen ikuspegitik aztertu nahi ditugu itzulpenak.

- > Noiz izango da testu bat 'ona'?
- > Nork/nola erabaki doinu literarioaren egokitasuna?
- > Nola izan daiteke zuzentzaile eta itzultzaileen arteko lana emankorra?
- > Zenbat irakurle behar ditu testu batek? Zenbat errepaso?
- > Posible al da testu bat zuzentzea, jatorrizko hizkuntza jakin gabe?
- > Zein da editorearen papera?
- > Non dago sormen lanaren eta merkatuaren arteko oreka?
- > Noiz esan ezetz testu bati? Zergatik?

Galdera hauek Xabier Olarra (Igela argitaletxeko editorea eta itzultzailea) eta Fernando Reyrekin (itzultzailea eta zuzentzailea) batera aztertu nahi ditugu.

EuskAlemako taldekideak eta gai honetan interesa duten guztiak gonbitatu nahi ditugu mahai inguru honetan parte hartzera eta esperientziak elkar trukatzera.

Ongi izan eta laster arte,
Euskalema Elkarteako kideak